


BERRIZ ITZULTZEKO IRRIKAZ GARA GEROZTIK

K2 IPARRALDEKO ERTZA

Felix Iñurrategi

*Porteando del
CB al CBA,
más cerca
del CB. Al
fondo el K2*



SATELITE bidezko telefonoa zen gure aingeru guardakoa, hamaika buruko min emandakoa eta izerdia kostatutakoa. Londoneko aireportuan pagatu ziren extrak, Txinoei mugan bilete haunditan utzitakoak, ... Eskerrak Telefonicak musutruk utzita generaman, bestela, a zer numeroak!.

Poliki hasi zen lanean. Rawalpindin atera eta Indo aranean barrena, Tashorganen Txinoen esku gelditu arteko hiru egunak laburbildu genituen Yechenetik; Nanga Parbat ikusi genuela, Raka Poshi gain-gainean zela egindako bidea, Kungerab Pass, lagun laruegandik jasotako lehenengo inpresioa, e.a. Kashgarren egindako bi egunetako bisitak ere izan zuen aipamenik, Taklamakan (izena esateko ere!) desertuaren inguruan ginela eta, hurrengo egunean, jeepak hartu eta Mazadalaraino joango ginela, han gameluen abenturari ekiteko. A, guztiok ongi ginela, hori ere bai.

Bidetan trumoi hotsik izan bazen ere, planak ez zuen aldaketarik izan, eta hogeitamar gamelu pasatxorekin etorri ginen, Aghil Pass (5.000 m.) eta Shasgan ibaian barrena, lurralde misteriotsu hura deskubritzen genuela.

Hamaika egunen buruan, K2ko glaziarearen barrenean piztu genuen tramankulua: generadorea martxan jarri, antenarekin Indikoko satelitea aurkitu, Japon edo Norbegiako basera jo eta handik etxera. "Bai, iritsi gara, denok ongi baina panorama kaxkarra". Eta izan ere ez zen gutxiagorako.

Etxean jakingo balute!

Besterik ez genuen esateko, zintzilik utzi gintuztela eta lanak emango zizkigula mendia barrenera arteko bideak. Ordurako, 2.500 kg glaziarepean genituen, bi egunez hamahiru gameluzainen laguntzaz ekarriak, eta bien bitartean, glaziarearen eskuinaldean barrena, mendi alderako bidea eta basearen kokagunea zehaztu genituen.

Deiak dei, informazioa noiz eta nola eman eztabaidatu eta gorako bidean ginen, base aurreratuaren bila. Horretarako, lehenbizi, kanpamendua bedeinkatu genuen, ohi legez jainkoei ere baimena edo beren onespena eskatzeko, baina ez dakit zuzen kunplitutako ote genuen; beharbada arroz edo irin gutxitxo eskaini genien, edo agian whisky botila ez zen goraino beteta iritsiko aldarera, edo nik dakit zer. Kontua da telefonoarekin beste dei bat baino ez genuela egin ahal izan, eta kitto. Kontxik botatako "kaka zaharra!!!" jainkoek entzungo zuten, bai horixe, baina gure ibileren seinalerik ez zen berriz etxe aldera iritsi.



Porteando del CB al CBA



Porteando del CB al CBA en el tramo donde cruzamos el glaciar, entre las torres de hielo

Bili izan zen destorniladorea animosoen astindu zuena; telefonoaren eskuinaldeko tapan, dozenaerdi tornilo-bururi buelta erdi eman, tapa jaso eta kable mordoska, guztiak ere itxura batean ongi. Ezkerreko tapa handiaren azpian zirkuito inpresoak: maila bat, bi, lau ... Uff! Interruptoreei ziritxo batzuk bai, baina nobedaderik ez. Ezker ezkerrean hight voltage, han kieto. Bekainak zimurtuz pasatu zion Albertori txanda. Kepa ere inguruan zelarik, lau begi ibili ziren goiti-beheiti zeharka eginahaldean, baina profanoaren emaitza xumea baino ez zuten jaso. "Ez dago zer eginik, ez da bese telefono deirik izango". Akabo.

Telefono gabe, beraz, ekin genion mendiko lanari. Hori bai, komentariarik ez zen

falta izan: hau edo hori kontatzerik balego, etxean hauxe jakingo balute, traste horrek funtzionatuko balu, konpontzeko gai bagina, aukera izpi bat bagenu ...; balego, balute, bagina, ba... anai-arreba asko omen ziren.

Telefonoa martxan izan balitz, Fernando eta Albertok kontaktuko zuketean glaziarearen barrena egindako lana, nola morrenaren eskuinaldean sartu eta beheko kanpamendua jartzeko lekua aurkitu zuten, eta handik aurrera, berriz, joanaldi izugarria egin eta gero, nola mendia oso urritu ikusi zuten. Nola bide horrek lehenengoz ikusi zutenetik aldaketa nabarmenak izan zituen, batez ere eskuinaldetik erdialdera jo genuen tartean, autopistara iritsi arteko bidean.

Elurra bai

Autopista, bide zabal eta luzea. Goitik behera eta karga gabe, bizkorren egindako denbora ordubete ingurukoa izanik, kon-tuak atera espedizioa hasieran hogeitaka kilo bizkarrean hartu eta lainopean nora gindoazen ez genekie-la, zertzu ikustera iritsi ginen. Harria gora, harria behera, harripe-ko izotza eta gaineko elurra, bost ordu ingu-ruko kalbarioa mendit-ik oraindik ere bi ordutara zegoen base aurreratura iristeko. Zer eta lanik latzena izan zen hori, bukatu genuenerako elurra hasi baitzen.

Elurra. Hiru lau aldiz atera genuen elurpetik base aurreratuko sukaldea eta elurretan ia igeri egin genuen zortzi mila metrotara. Elurrari ekiten zionean hartzen genuen aito-pistan behera basera-ko bidea, eta elurra urtzen zenean bueltatzen ginen indarberri-tuta. Baina luzimendu txikirako indarrak izan ziren guztiak, elurrak bai, baina guk ez bai-kenuen zer esan han-dirik sortu.

Lehenengo pausoa, lehenengo kanpamen-dua, alegia, nora jo zalantzan izan eta gero, serak zulo bate-an sartu genuen, zulo-aren barrenean piolet eta pala saio polita egin eta hantxe. Ez zen konfidantza handiko lekua, baina kanpoal-dean goitik behera zetozen elur-jausiak ikusita, hobeto geun-den izotzaren karraka-ra hotsak entzuten.

Japoniarren bidea, gure zulo hartatik ezkerretara zioan, arista aldera jo eta gora-go eskubitara bueltatzeko. Albertok, bide haren behe aldeari lepoa okertu eta ezker begia itxita begiratzen zion, eta ez zen sei-nale ona. Eskuinaldeko pala hartu eta zuzen gora egitea proposatu zuen. Bi metro zabal zituen tartean, zortzirehun metro egin genituen zuzen-zuzen, ezker-eskuin, aldiro-aldiro, abalantxak pasatzen

zirelarik eta goialdean soka zaharrak aurki-tu genituenean, segi arrastoari.

San Ferminen usaian, guk ere izan genuen pozteko motiborik, bi egunez baino ez zen izan baina; hura zen lana egin eta fuitua jasotzea. Tarteka izotza bizi-bizi, egunean laurehun-bostehun metro gora eta bigarren kanpamendua esku-eskura genuenean, to, untalako elurtea!


Kronika dotoreak egingo genituen hurrengo hogeitatu egunetan: "bai, gaur ere saiatu gara, baina, hutsaren hurrengoa. Gora igo, hotza pasatu, egurtu ederra jaso eta behera", edo "ez bada, ezta ikerarik ere. Hementxe gaude, pokerrean jokatu, zertxo-bait irakurri, tertulia egin ... ez baitu egural-diak laguntzen". Ez genuen zuzenean kon-tatzerik izan, bestela...





Del CBA hacia la pared, en un camino de dos horas (en la pág. de la izquierda)

Retirada del CBA hacia el CB en un período de mal tiempo



Hacia el CIII a 6.900 m

Azken saioa

Azken saioa, besterik ez zitekeen egin. Denbora akordatu orduko pasatu zen eta gure izerdi guztiak bigarren kanpamenduko 6.700 metroetara bidean joan ziren. Balantzea triste antzekoa: zenbait denda hautsita, lehenengo kanpamendua erabili ezina (txiki-txiki eginda, alegia), jendea nekatuta

eta paretan, aurre-egin beharreko elur-maila polita.

Base aurreratuan atera eta bigarren kanpamendura 1.800 metroko saltoa genuen, goizeko ordubietan altxatu, elkarri bi hitz hotz gurutzatu eta eguerdia arteko jarduna izaten zena; ez da sarri egin genuelako, baina akordatzeko adina aldiz bai. Soka finkoetan sartu eta 600-800 metroen bitartean

eguna zabaltzen zuen eta 700etik 800era bitarteko largoa, seguru-seguru, Albertori tokatzen zitzaion: sokak atera, arrastoa egin eta mekauden batzuk botatzea; azken hau, batipat, largorik txarrena baitzen.

Azken saioko igoeran ere halaxe izan zen, edo aldaketa haundirik gabe behinik behin.

Sorpresa haundirik gabe, bigarreneko denda negargarri aurkitu genuen. Beraz, plataforma berria moldatu beharra izan zen. Arratsalde erdi aldera, Bilik eta Fernandok eskeletoa mugitzen ziharduten, beren denda moldatzeko, pioleta eta palari eman eta eman. Mila eta zazpirehun metro beherago zegoen glaziarea eta hantxe jaso genituen egun batzuk eroago, maldan behera joan zitzaigun txapela eta eskuekin agur-agur eginda despeditu genuen denda-kanpaina; hobea zen, bada, kanpamenduko dendak modu onean uztea, sakura sartu aurretik.

Gau horretan, ez zen plan berezirik egin, izan ere, denok geunden nekatuta, eta eguzki larri samarra agurtu genuen Fernandori nekeak, gorako ilusioa gainditu zion eta goian gerta zitekeenaren espektatiban, bueltarako laguntza gisa geldituko zela zioen. Ongtxu xerpak, elurra zapaldu zitekeen bitartean baietz, baina goiko haitzartean ez zela sartuko. Biliri gauak esango ziola zer egin eta Alberto eta biok, ahal genuen artean, gora tiratzekotan gelditu ginen.

Hiru mila metro gora

Goizeko 8etan, lainoa, haizea eta elurra nahas-nahasean zebiltzan dendaren inguruan eta sakuaren beroa atera zen garaile. 11k alderako jaso egin zuen zertxobait eta botak jantzi eta motxilak hartzera animatu ginen. Bilik ere bazetorrela eta material pixka bat hartu eta Ongtxurekin batera, joan etorriko bidea egingo zutela. Hala, 7.200 metroen inguruan agurtu genuen elkar, ametsezko ilunabar baten atarian. Gorakoan egindako arrastoa behera izkutatatu ziren haiek, soka finkorik ez zuten poliki, pauso bakoitza egoki neurtuz, eta guk berriz, denda barrenean, hurrengo orduak neurtzeari ekin genion, noiz atera eta noizko itzuli, zer eraman eta zer utzi.

Bezperakoa baino eguraldi hobearrekin, presarik gabe eta arin, oso arin, mugitu ginen gora. Hiru orduren buruan, nekatu antzak ordurako, beste espesizio batzuk hirugarren kanpamendua jarri zuten lekura iritsi ginen; beraz, kalkukoak ez genituen zuzen eginak. Azkenengo elur-sailean, belaunean gora gerriraino ere sartu ginen zenbait metrotan, gainaldeko haitzetara heltzeko. Haitzean ere, saio polita egin eta nora jo ez genekiela, Josebaren ahotsa iritsi zitzaigun. Hamabost kilometro ingurura zegoen baina teleskopioaren laguntza non geunden eta nora jo behar genuen esan ziezagukeen, eta nola ez bada, gorago joan beharra zegoen.

Laugarren kanpamendura iristeko 200 metro inguru falta zitzaizkigun, gehientsuenak haitzean; haitz ustel eta tentea, 7.900 metrotan lanak emateko modukoa.

Metro konprometitu horiek pasata, espedizioaren kronikari ezusteko pozik nekez erantsiko genio la sinistu beher izan genuen. Hariaino, gorputzari gehiegitxo eskatuta iritsi ginen, lehen eginda geunden. Pare bat orduren buruan izkutatuko zen eguzkia eta haizearen-gandik babesteko aukerarik ez zen. Pitxi-lorearen atzean elefanteak gordetzerik ez den moduan, gure motxilek ere ez zezaketan miraririk egin haize finaren aurrean; eta zer egin?

Bukatu da

Hiru mila metro igo genituen, banan-banan metro bakoitza sufrutuz, eta beste sei-rehun baino ez ziren falta. Tontorra hantxe ikusten zen, azkenengo kanpamendutik inoiz ikusi dugun hurbilen, eta saiotxo bat egitea merezi genuela iruditu zitzaigun. Baina itxuraz, ez zuen hala behar, hara bestela itzuleran diarioan jasoa:

- 10,30etan atera gara, ia ilun.

- Erokeria izan da elur sakon horretan aurrera egin izana.

- Hirugarren largotan erori egin naiz, reuniona montatu eta besterik ezer ere ez, buelta.

- Bueltakoan, Albertok eskapada, ¡¡¡Ya nos vale!!!

Hala ere, garaiz hartu zen erabakia. Hamabiak aldera, "Hau bukatu da" esanez, bueltako bidean ginela abisatu genien behekoie. "Lasai, poliki jaitsi, kontuz ibili, presarik ez dago ..." la aspertu arteko erretolika entzun genuen baina halako egoeran,



Hacia el C IV bajo el gran serac del K2 a 7.600 m

Itinerario seguido por la expedición al K2, firmado por los componentes de la misma



memoria freskatzeak ez du kalterik egiten.

Freskatu, gu freskatu ginen, gauaren ilunean 4. kanpamenduko balkoitik behera jaisteko animorik ez baitzitzaigun berotu eta haizeari ipurdia emanda, orduak pasatu zai gelditu ginen. Hotzak Zaragoza akordarazten zigun eta Ricardo: "Es que sois unos capullos" esaten, eta orduan "benga, jaitsi

egin behar dugu" esaten genion elkarri. Zutitu, patiora burua atera eta "Keba, keba, keba, ... itxoin egingo dugu".

Baina gaua luzea izaki halakotan, eta hirulau aldiz erreplikatu genuen numerotxo. Goizeko lau t'erkiak aldera, bi pausotako joan-etorrian zebilen Alberto eta ordura arte behe aldean mantendu zen laino itsasoa



Fotos del autor

DATU PRAKTIKUAK

Baimena

CMA (China Mountanering Association). Espedizio-baimenak kudeatzen dituen agentzia bakarra da. Proiektua aurkeztu behar zaie (mendia, bidea, egutegia, jendea eta pisu guztia) aurrekontua egin dezaten eta horren zati bat, erdia inguru, hilabete lehenago ordaintzeko.

Kalkuloak aurrez ongi egitea ezin bestekoa da (pisua batipat) gero arazorik ez izateko.

Nola iritsi

Guk egindako aukera: Pakistanen barrena. Rawalpindi-Tashorgan hiru egun, 135 bidaia ordu. Gero txinoekin kamioiez beste hiru egun, gameluetara iritsi arte.

Beste aukera batzuk:

- Moscu-Akuia Ata-Urunki-Kashgar + 2 egun kamioi
- Pekin-Urunki
- Ankaratik ere posible omen da.

Aproximazioa

Mazadalan ekiten zaio. Haraino jeep eta kamioietan joan eta gero. Lau-sei egunetako aproximazioak Hiden Peak, Broad Peak, K2 edo inguruko mendietara. Kontu egin mendirik gehientsuenetan 20-25 km-tara utziko gaituztela eta glaziareak luzeak direla. Gameluzainek ez dute porteatzen.

K2 ko ipar ertzeko bidea

3.700 mko desnibela. Teknikoa (60ºra arteko izotza eta 7.800era haitzean eskalatu beharra). Behe partean izan ezik, gainerakoan segurua.

Kanpamenduak

Basea: 4.000-4.600 m. bitartean, lan egiteko gogoaren arabera.

ABC: 4.900 m. Paretatik bi ordutara, Glaziarean.

1K: 5.500 m. inguru, Inseguru, non jarri asmatzen lanak.

2K: 6.700 m. Leku gutxi, segurua, Lan asko egin behar.

3K: 7.600 m. (guk 7.200 mra).

4K: 7.900 m. Leku gutxi, haitzean.

Sarrera japoniarren bidetik arriskutsua zela ikusirik, eskuineko palan 800 metro berri eginez moldatu genuen.

Ekipamentu-lanak 2. kanpamenduraino egin genituen.

Beste espedizio batzuek 8.000 mraino ekipatu izan dute. Dena den, urtetako sokak ezin erabili dira.

Kontuan izatekoak

- Garaia: maiatzetik irailera bitartean
- Elikofteroz errezkatea egiterik ez dago eta nahi denean itzultzerik ere ez.
- Gameluzainak urruti bizi dira eta aurrez hitz egindako egunerako etortzen dira.
- Sukaldaria etxekoa izatea interesgarria da. Txinoak kondonatu txarrak dira.

Espedizioko partaideak

JOSEBA URKIA, JON ANDER LOIDI, ALBERTO eta FELIX INURRATEGI, FERNANDO URIBESALGO, KONTXI ZOZAYA y KEPA DE MATEO.

Irteera Bilbon: 1993-5-16

Itzulera Bilbora: 1993-9-4

goraka zetorrela sumatu zuen. Beste irteerarik ezean, rapelak egiten hasi ginen, aldiko 25 metro triste, baina 50 metroko soka bakarrarekin zer egin besterik?.

Egunsentirako, lasaitzeko moduan ginen sakuaren epelean, denda baten babesean, nahiz eta 7.000 metrotatik gora izan oraindik.

Bili eta Fernando haserre genituen zai, walkiak noizean behin erabiltzeko jasotzen direla esanez, eta ez motxilan pasiatzeko. Horma barrenera Joseba, Ongtxu eta Gopal heldu ziren, dena eta denok jasotzera eta Kontxi eta Kepak pentsa zer otordua moldatuko zuten.

Berriz itzultzeko irrikaz gara geroztik.